



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/20

Euskal erakundeek Euskadiren "irudi ona" erakutsiko dabe Washingtonen, "turismoa erakarteko" eta "ekonomia eta kultur arloetako akordioak ezarteko"

Lorea Bilbao Euskera eta Kultura diputatua Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur, berak eta Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak eskatuta, 2016ko bagilaren 29tik garagarriaren 10era Washingtonen (EE.BB.) egingo dan Smithsonian Folklife Festival proiektuaren garapen mailea zein egoera zehatzetan dagoan azaltzeko. Jaialdi horretan euskal erakundeek Euskadiren “irudi ona” emon gura dabe, “turismoa erakarteko” eta “ekonomia eta kultura arloetako akordioak ezarteko”.

Bilbaok azaldu dauenez, hiru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu daben eta Nafarroako Gobernuaren parte hartzea be izango dauen proiektuak Euskal Herriko herri bat irudikatuko dau, “Basque” markaren aterkinaren babesean. Bertan euskal idiosinkrasiaren elementu “esanguratsuak” egongo dira, hainbat espazio fisikoren, portu, baserri, pilotaleku, plaza edo euskaltegi baten bitartez, lotuta.

Euskadi konbidatutako kultura moduan egongo da “mundu mailako” erakusleihu horretan. Bertara joateko lau erakundeek “1,2 milioi euroko” inbertsinoa egingo dabe guztira. Euskal Herriko gastronomiak oso leku garrantzitsua beteko dau. “Goi mailako sukaldaritzako afaria” eta “formatu txikiko erakusketa gastronomikoak (pintxoak)” dagoz programauta moduluetako baten barruan.

Bilbaok azaldu dauenez, jaialdia hasi aurreko egunean –datorren bagilaren 28an– harrera ekitaldi bat antolatuko da, eta bertan “ekitaldi berezia” egingo da, antolatzaileakaz “batera”. Diputatu andreak esan dauenez, ekitaldi hori, hurrengo egunetik aurrera “etorriko danaren barri emongo dauen kultur ikuskizuna” izango da. “Tradizinoa eta barrikuntzea” eta “esperientzia eta gazteria” uztartuko dituan ekitaldi horretan, dantzak, bertsolariak –“euskeraz eta ingelesez”– eta Joaquin Achucarroren eta Lucia Lacarraren emonaldiak dagoz aurreikusita.

Diasporako kideakaz batera, Euskal Herriko ordezkariak, Bilbaok azaldu dauenez, Estatu Batuetan Euskadiren gainean dagoan ezagutza falta handia murriztea gura dau, euskal kulturaren inguruan egon daitekezan “topikoak eta aurreretxiak” baztertzea, estatu batuarrak “harrituta iztea” euskal tradizioaren eta modernotasunaren hedapenagaz, kultura eta ekonomia arloetako erlazinoak ezartea eta Euskadi turismorako jomuga moduan bultzatzea. Diputatuak azpimarratu dauenez, Folklife Festival horretan parte hartzea benetako “aukerea” da. Aurreikusten danez milaka pertsona joango dira bertara, eta Interneten oihartzun handia izango dau.

Bilbaok azaldu dauenez, euskal folklorea be balioan jarriko da, eta folklore hori osatzen daben diziplina guztietan aritzen dan jendeak egiten dauen beharra aintzatetsiko da. Holan, hitzordura joango diran taldeen izenak aitatu ditu, Albaola, Tknika Branka Composites, Artxandako eta Gamarrako Ostalaritza Eskolak, Ondare, Azkue Fundazioa edo Habe, eta Aukeran dantza



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

taldeak, hainbat musika talde ahaztu barik, Korrontzi, Kepa Junkera, Gatibu, Kalakan edo Mikel Markez, beste batzuen artean.

Egun horreen barruan, hainbat jardunaldi “berezi” izango dirala adierazo dau Bilbaok. Bagilaren 29an, jaialdiaren lehenengo egunean, programazioak, euskaldunok itsasoagaz daukagun milaka urteetako erlazino horretatik nabigatuko dau. Garagarrilaren lean, diasporako kideek hitzarmena sinatuko dabe euskal administrazioakaz, eta Estatu Batuetako diasporaren historiaren gaineko liburu bat aurkeztuko dabe. Garagarrilaren 7an kinua egingo jake San Fermin jaiei, eta beste egun bat, Donostia kulturaren Europako uriburua dala azpimarratzeko erabiliko da.

Batzar Nagusietan ordezkariak daben alderdietako ordezkariak balorau egin dabe Euskadi bere mugetatik kanpo ezagutuarazoteko eta “munduko mapan” jarteko gauzatuko dan ekimena.

Batzarretako taldeek parte hartzeko euki daben tartean, Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariak aholkua emon deutso diputatu andreari, Euskadiko ordezkariak, Euskadik dauen gaitasun teknologikoa, goi mailako sukaldaritza eta bizitza mailea azpimarratu daizan, Estatu Batuetan horren gainean gauza gitxi dakielako.

Aldecoak esan dauenez, oso leku egokia izango litzateke “Estatu Batuen independentzia” bultzatu eban pertsonetako bat izan zan Diego de Gardoqui merkatari, ontzigile eta diplomatikoak egin eban behar garrantzitsua ezagutuarazoteko eta zabaltzeko, izan be, garraiatu eban zidarrari esker “Saratogako garaipena” bultzatu eban. “Gardoqui ezinbesteko pertsona izan zan –esan dau– eta hori holan izan zala ikusteko, nahikoa da George Washingtonek Estatu Batuetako presidente kargua hartu ebanean, Gardoqui bertan egon zala esatea”.

LAPURRETEA ARGIÑETAKO NEKROPOLIAN

Beste alde batetik, diputatu andreak, joan zan maiatzean Argiñetako (Elorrio) nekropolian gertatu zan hilarri baten kopiaren lapurretea aitatu dau. Gai hori dala eta diputatuaren agerraldia eskatu dauen Talde Mistoari erantzunez, Bilbaok adierazo dau aurkeztu beharreko salaketea aurkeztu dala Ertzaintzaren aurrean, eta polizia txostena jasotearen zain dagozala, gertakariak argitzen diran ala ez ikusteko.

Aldundiko arduraduna “arduratuta” agertu da lapurreta horren aurrean, eta “ horri aurre egitea oso gaitza” dala autortu dau, “ezin daikegulako leku guztietan zainketarik jarri”, esan dau. “Biztanleria osoa sentibilizetea lortu behar dogu, gazteenak batez be”, kultur ondarea gordeteak eta kontserbeteak dauen garrantziaren inguruan. Argiñetaren kasuan, Elorrioko Udalagaz batera “moltso osorako proiektu integrala” diseinetearen alde agertu da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
20/06/2016

Las instituciones vascas mostrarán en Washington una "buena imagen" de Euskadi para "atraer turismo" y "establecer acuerdos económicos y culturales"

La diputada foral de Euskera y Cultura de Bizkaia, Lorea Bilbao, ha comparecido hoy en las Juntas Generales, a petición suya y del grupo juntero Podemos Bizkaia, a fin de dar cuenta del grado de concreción en el que se encuentra el proyecto Smithsonian Folklife Festival que se desarrollará entre el 29 de junio y el 10 de julio en Washington (EE.UU.), y en el que las instituciones vascas pretenden ofrecer una “buena imagen” del País Vasco, con el objetivo de “atraer turismo” y “establecer acuerdos económicos y culturales”.

Bilbao ha explicado que el proyecto impulsado por las tres diputaciones y el Gobierno vasco, en el que participará también el Gobierno de Navarra, recreará un pueblo de Euskal Herria, bajo el paraguas de la marca “Basque”. En él habrá elementos “significativos” de la idiosincrasia vasca que se entrelazarán a través de distintos espacios físicos como un puerto, un baserri, un frontón, una plaza o un euskaltegi.

La presencia de Euskadi como cultura invitada en este escaparate “mundial”, que supondrá a las cuatros instituciones una inversión total de “1,2 millones de euros”, tendrá un lugar especial para la gastronomía vasca. Hay programada “una cena de alta cocina y muestras gastronómicas” de pequeño formato (pintxos) dentro de uno de los módulos.

Bilbao ha explicado que el día previo al inicio del festival -el próximo martes 28 de junio- se ha organizado una recepción en donde habrá cabida para un “evento especial” que se desarrollará “conjuntamente” con los organizadores, en lo que ha definido como un “espectáculo cultural que anunciará lo que va a venir” a partir del día siguiente. En este acto que conjugará “tradición e innovación” y “experiencia y juventud”, están previstas danzas, bertsoak –“en euskera e inglés”-, y las actuaciones de Joaquín Achucarro y Lucía Lacarra.

Junto con los miembros de la diáspora, la delegación vasca, según ha explicado Bilbao, aspira a reducir el gran desconocimiento que sobre Euskadi tienen en EE.UU., eliminar los “tópicos y prejuicios” que puedan existir en torno a su cultura, “sorprender” a los norteamericanos con la difusión de la tradición y la modernidad vascas, establecer relaciones culturales y económicas y desarrollar el País Vasco como destino turístico. La diputada ha destacado la “oportunidad” que representa estar presente en el Folklife Festival, al que se prevé acudan miles de personas y que tiene notable repercusión en internet.

Bilbao ha indicado que también se pondrá en valor el folklore vasco y reconocer el trabajo de la gente dedicada a las distintas disciplinas que engloba. En este sentido, ha citado a distintos grupos o colectivos que acudirán a la cita como miembros de la fábrica Albaola, de Tknika Branka Composites, de las Escuelas de Hostelería de Artxanda y Gamarra, de Ondare, de la Fundación Azkue o Habe, y de la compañía de danza Aukeran, así como grupos musicales como Korrontzi, Kepa Junkera, Gatibu, Kalakan o Mikel Márquez, entre otros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A lo largo de los días, Bilbao ha marcado como “especiales” varias jornadas. El 29 de junio, primer día de festival, la programación navegará en esa milenaria relación que mantienen los vascos con el mar. El 1 de julio, miembros de la diáspora firmarán un convenio con las administraciones vascas y presentarán un libro sobre la historia de este colectivo en EE.UU. El 7 de julio se hará un guiño a las fiestas de San Fermín y habrá otro día para aprovechar que Donostia es capital europea de la cultura.

Los miembros de los distintos partidos con representación en las Juntas Generales de Bizkaia han valorado la iniciativa para dar a conocer la cultura de Euskadi fuera de sus fronteras y colocarla en "el mapa mundial".

Durante la intervención de los grupos junteros, el representante del grupo mixto, Arturo Aldecoa, ha aconsejado a la diputada que la delegación vasca, frente al desconocimiento existente en EEUU, incida en destacar la capacidad tecnológica de Euskadi, su alta cocina y nivel de vida.

Aldecoa ha señalado que sería un buen lugar para descubrir la labor del comerciante, naviero y diplomático vizcaino Diego de Gardoqui que fue una de las personas que propició "la independencia de los EEUU" a través de la plata que transportó, posibilitando "la victoria de Saratoga". "Gardoqui fue una pieza clave -ha dicho-, tan clave que cuando George Washington tomó posesión -como presidente de EEUU- él estaba allí".

ROBO EN LA NECRÓPOLIS DE ARGIÑETA

Por otro lado, la diputada se ha referido en la comisión al robo de la réplica de una estela perteneciente a la necrópolis de Argiñeta (Elorrio), ocurrido en mayo pasado. En respuesta al grupo Mixto que había pedido su comparecencia por este asunto, Bilbao ha informado de que se ha interpuesto la correspondiente denuncia en la Ertzaintza y que están a la espera de recibir el informe policial para ver si se esclarecen los hechos.

La responsable foral se ha mostrado “preocupada” por estos robos que son “muy difíciles de atajar”, ya que “no podemos poner vigilancia por todas partes”, ha dicho. “Hay que conseguir sensibilizar a la población en general, y a los más jóvenes en particular” de la importancia de mantener intacto el patrimonio cultural. En el caso de Argiñeta, se ha mostrado partidaria de idear, junto al Ayuntamiento de Elorrio, “un proyecto integral para todo el conjunto”.